



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

1. ZUZENKETA:

Zioen Azalpena ALDATZEKO bigarren parrafoan.

Jatorrizko testua:

Testuinguru horretan kokatzen da lege hau, eta zioen azalpen honetan aipatzekoa da aurrekari bi dituela beste erkidego batzuetan. Kataluniako Parlamentuak aho batez onartu zuen apirilaren 23ko 3/2008 Legea, Kirol-arloko lanbideetan jarduteari buruzkoa. Lege hori onartzeko arrazoia izan zen, hain zuzen ere, kirol-jarduerak nabarmen eragiten duela kirola egiten duten pertsonen osasunean eta segurtasunean. Extremadurako Biltzarrak ere arrazoi berbera baliatu zuen 15/2015 Legea onartzeko (15/2015 Legea, apirilaren 16koa, kirol-arloko lanbide-jarduna antolatzen duena Extremaduran).

Testu berria:

Testuinguru horretan kokatzen da lege hau, hainbat aurrekari dituen beste erkidego batzuetan. Zehazki, hauek dira kirol-arloko lanbideen erregulazio propioa duten erkidegoak: Katalunia, Extremadura, Errioxa, Andaluzia eta Madril. Era berean, beste erkidego autónomo batzuk ere beren lege-testuak tramitatzen dihardute.

Zioa:

Gaur egun, kirol-arloko lanbideak arautzen dituzten xedapenak onartu dituzte Errioxako, Andaluziako eta Madrilgo erkidegoetan.





2. ZUZENKETA:

Zioen Azalpena ALDATZEKOA bosgarren parrafoan

Jatorrizko testua:

Kirol-arloko lanbideetan jarduteko modua arautzeko premiari dagokionez, zioen azalpen honetan nabarmendu behar da Konstituzio Auzitegiak hau azaldu zuela urriaren 1eko 194/1998 Epaian: "Konstituzioak berak agindua ematen die agintari publikoei gorputz-hezkuntza eta kirola susta dezaten (Espainiako Konstituzioaren 43.3 artikulua). Jarduera horiek oso lotuta azaltzen dira EKko 43. artikuluan aipatzen den osasunarekin; hain lotuta daude ezen, osasuna mantentzen lagundu ez ezik, haiei esker saihestu egin baitaiteke gorputz- eta kirol-jardueretako hainbat ariketa desegokik osasunean izan dezakeen eragin negatiboa; batez ere, zenbait kirol oso arriskutsu egitean. Jakina da, bestalde, jarduera horiek gero eta garrantzitsuagoak eta baloratuagoak direna; beraz, egoera horri erantzuteko, agintari publikoek kualifikazio-eskakizun berriak jarri dizkiete jarduera horietan diharduten profesionali".

Testu berria:

Kirol-arloko lanbideetan jarduteko modua arautzeko premiari dagokionez, zioen azalpen honetan nabarmendu behar da Konstituzio Auzitegiak hau azaldu zuela urriaren 1eko 194/1998 Epaian: "Konstituzioak berak agindua ematen die agintari publikoei gorputz-hezkuntza eta kirola susta dezaten (Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua). Jarduera horiek oso lotuta azaltzen dira EKko 43. artikuluan aipatzen den osasunarekin; hain lotuta daude ezen, osasuna mantentzen lagundu ez ezik, haiei esker saihestu egin baitaiteke gorputz- eta kirol-jardueretako hainbat ariketa desegokik osasunean izan dezakeen eragin negatiboa; batez ere, zenbait kirol oso arriskutsu egitean. Jakina da, bestalde, jarduera horiek gero eta garrantzitsuagoak eta baloratuagoak direna; beraz, egoera horri erantzuteko, agintari publikoek kualifikazio-eskakizun berriak jarri dizkiete jarduera horietan diharduten profesionali".

Zioa:

Akatsa.





3. ZUZENKETA:

Zioen Azalpeneko laugarren parrafoa ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

Zioen azalpen honetan, jasota geratu behar da lege hau Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/123/EE Zuzentaraura egokitu dela (2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa). Horretarako, batetik, oztopoak kendu dira, hots, Batasuneko estatu kideetan profesionalak kokatzeko askatasuna eta zerbitzuen zirkulazio librea eragozten duten oztopoak kendu dira; eta, bestetik, bai zirkuitu profesionalen hartzaileei, bai zerbitzu-emaleei eurei ere, segurtasun juridiko nahikoa bermatzen zaie Europar Batasuna eratzen duen Ituneko oinarritzko askatasunak eraginkortasunez baliatzeko. Era berean, kontuan izan da zer legeria dagoen estatuan zerbitzuei eta lanbide-elkargoei buruz eta merkatu batasuna bermatzeari buruz.

Testu berria:

Zioen azalpen honetan, jasota geratu behar da lege hau Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/123/EE Zuzentaraura egokitu dela (2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa). Horretarako, batetik, oztopoak kendu dira, hots, Batasuneko estatu kideetan profesionalak kokatzeko askatasuna eta zerbitzuen zirkulazio librea eragozten duten oztopoak kendu dira; eta, bestetik, bai zirkuitu profesionalen hartzaileei, bai zerbitzu-emaleei eurei ere, segurtasun juridiko nahikoa bermatzen zaie Europar Batasuna eratzen duen Ituneko oinarritzko askatasunak eraginkortasunez baliatzeko. Era berean, kontuan izan da zer legeria dagoen estatuan zerbitzuei eta lanbide-elkargoei buruz eta merkatu batasuna bermatzeari buruz.

Zioa:

Akatsa gaztelaniazko testuan.





4. ZUZENKETA:

1.7. artikulua ALDATZEKOA.

Jatorrizko testua:

7.- Lege honen eremutik kanpo geratzen dira lanbide-jarduera hauek:

- a) Urpekaritza profesionalarekin lotutako jarduerak.
- b) Salbamendu eta laguntzako lanbide-jarduerak, kirol-arlokoak ez direnak.
- c) Parakaidismoko lanbide-jarduerak, kirol-arlokoak ez direnak.
- d) Ibilgailu edo tresna motordunak gidatzean oinarritzen diren lanbide-jarduerak, kirol-arlokoak ez direnak.
- e) Laketontziak maneiatzeko edo gobernatzeko lanbide-jarduerak, kirol-arlokoak ez direnak.
- f) Kirol-instalazio edo -erakundeetako kudeatzaileen lanbide-jarduerak.
- g) Prestakuntza fisikoko lanbide-jarduerak, Indar Armatuak Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten zentroetan burutzen direnak.
- h) Bide-teknikariei dagozkien lanbide-jarduerak.
- i) Dantza-jarduerak, kirol-arlokoak ez direnak.

Testu berria:

7.- Lege honen eremutik kanpo geratzen dira lanbide-jarduera hauek:

- a) Urpekaritza profesionalarekin lotutako jarduerak.
- b) Salbamendu eta laguntzako lanbide-jarduerak, kirol-arlokoak ez direnak.
- c) Parakaidismoko lanbide-jarduerak, kirol-arlokoak ez direnak.
- d) Ibilgailu edo tresna motordunak gidatzean oinarritzen diren lanbide-jarduerak, kirol-arlokoak ez direnak.
- e) Laketontziak maneiatzeko edo gobernatzeko lanbide-jarduerak, kirol-arlokoak ez direnak.
- f) Kirol-instalazio edo -erakundeetako kudeatzaileen lanbide-jarduerak, baldin eta ez badihardute Lege honetak araututako kirol-jarduerako profesionalen funtzio espezifikoen, jarduerak fisikoko eta kiroleko zientziak aplikatuz.
- g) Prestakuntza fisikoko lanbide-jarduerak, Indar Armatuak Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten zentroetan burutzen direnak.
- h) Bide-teknikariei dagozkien lanbide-jarduerak.
- i) Dantza-jarduerak, kirol-arlokoak ez direnak.
- j) Egokitutako kirolean, kirol teknikariak ez diren langile laguntzaileek egindako jarduerak.



k) Haurren eta gazteen aisialdirako eremuko jarduera profesionalak, betiere jarduera fisikoa edo kirolekoa jardueren programazio orokorreko zati txikia direnean.

Zioa:

Lege honen eremuko salbuespenak zehaztea.





5. ZUZENKETA:

4.2 artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

2.- Lanbide horretan aritu ahal izateko egokitze fisikoarekin, egoera fisikoa errekonperatzearekin edo hobetzearekin eta entrenamendu edo prestaketa pertsonalarekin lotutako jardueretan edo antzekoetan, titulu akademiko hauen bidez egiazta daitekeen kualifikazio bat eskatuko da:

- a) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua.
- b) Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria.
- c) Egokitzapen Fisikoko goi-mailako teknikaria.

Testu berria:

2.- Lanbide horretan aritu ahal izateko egokitze fisikoarekin, egoera fisikoa errekonperatzearekin edo hobetzearekin eta entrenamendu edo prestaketa pertsonalarekin lotutako jardueretan edo antzekoetan, edo posturen kontrolerako, ongiaterako eta mantentze funtzionalerako jarduera fisikoetan edo kirolekoetan, titulu akademiko hauen bidez egiazta daitekeen kualifikazio bat eskatuko da:

- a) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua.
- b) Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria.
- c) Egokitzapen Fisikoko goi-mailako teknikaria.

Zioa:

Gimnasia suabeen eremuaren baitako jarduera batek, pilates edo yoga bezalakoak, zalantzak sortuko litzake lege proiektuaren egungo idazkerarekin, egokitze fisikoko jardueratzat hartu beharko ote litzakeen (4.2 artikulua) edo hezkuntzakoa (4.3 artikulua). Idazkera berriaz, egiaztatu egiten da jarduera gehiago dagoela egokitze fisikoaren eremuari lotuta (izan ere, yoga edo pilatesen edukiak Egokitze Fisikoko Goi Teknikari Tituluan sartuta daude).





6. ZUZENKETA:

4.3. artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

3. Lanbide horretan aritu ahal izateko izaera orokorrekoak edo kirol edo diziplina anitzekoak diren ikaskuntza- eta irakaskuntza-jardueretan edo antzekoetan (kirol-modalitate edo -diziplina jakin batera bideratzen ez diren jarduerak), honako titulu akademiko hauen bidez egiazta daitekeen kualifikazio bat eskatuko da:

- a) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua.
- b) Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria.
- c) Gizarteko eta Kiroletako Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikaria.

Testu berria:

3. Lanbide horretan aritu ahal izateko izaera orokorrekoak edo kirol edo diziplina anitzekoak diren ikaskuntza- eta irakaskuntza-jardueretan, gizarte eta kirol animazioko jardueretan edo antzekoetan (kirol-modalitate edo -diziplina jakin batera bideratzen ez diren jarduerak), honako titulu akademiko hauen bidez egiazta daitekeen kualifikazio bat eskatuko da:

- a) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua.
- b) Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria.
- c) Gizarteko eta Kiroletako Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikaria.

Zioa:

Artikulu honek aipatzen dituen jardueren asmoa ez dagokie irakaskuntza/ikaskuntza jardueri soilik, baizik eta baita ere aisialdi edo animazio izaerako beste batzuei, ez dutenek zertan irakaskuntza-orientaziorik izan behar, adibidez, jolas fisikoak edo kirolekoak. Izan ere, Lanbide Heziketako titulu berriak, besteak beste horrelako jardueretarako gaitzen duenak, izena du Gizarteko eta Kiroletako Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikaria.





7. ZUZENKETA:

4.4 artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

4. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduera horiek eta antzekoak kirol-modalitate edo -diziplina bakar batera bideratuta badaude, eta kirol-arloko hastapenetan edo oinarrizko mailan egiten badira, honako titulu edo ziurtagiri hauen bidez egiaztatu daitekeen kualifikazio bat eskatuko da:

- a) Dagokion kirol-modalitate, -espezialitate edo -diziplinako Kirol-teknikariaren tituluaren Erdi Mailako Hasiera Zikloaren ziurtagiria.
- b) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Kirol-teknikaria.
- c) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-teknikaria.

Hirugarren zenbakian aipatzen diren titulazioen bidez egiaztatu daitekeen kualifikazioen bat duten guztiek, era berean, diziplina bakarreko eta oinarrizko mailako irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueretan eta antzekoetan lan egin ahal izango dute, betiere prestakuntza berezia badute dagokion kirol-modalitate edo -diziplinan.

Testu berria:

4. Gizarte- eta kirol-animazioko edo irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduera horiek eta antzekoak kirol-modalitate edo -diziplina bakar batera bideratuta badaude, eta kirol-arloko hastapenetan edo oinarrizko mailan egiten badira, honako titulu edo ziurtagiri hauen bidez egiaztatu daitekeen kualifikazio bat eskatuko da:

- a) Dagokion kirol-modalitate, -espezialitate edo -diziplinako Kirol-teknikariaren tituluaren Erdi Mailako Hasiera Zikloaren ziurtagiria.
- b) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Kirol-teknikaria.
- c) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-teknikaria.

Jarduerak bereziki edo nagusiki zuzenduak badaude disgaitasuna duten pertsonen, dagokion modalitatean Kirol Teknikari edo Kiroleko Goi Teknikari kualifikazioa edo parekoa dutenek jardun ahal izango dute, salbu eta egokitutako kiroleko modalitate edo disziplina propio edo berezietako jardueretan, adibidez boccia, goalball edo slalom, zeintzuetan jardun ahal izango baiten egiaztatu daitekeen kualifikazio batez, dagokion egokitutako modalitate edo disziplinako Kirol Teknikariko Tituluko Gradu Ertainaren Hasierako Zikloaren Ziurtagiriaren bidez.



Hirugarren zenbakian aipatzen diren titulazioen bidez egiaztatu daitekeen kualifikazioen bat duten guztiek, zerbitzu profesionalen hartzaile diren pertsonak disgaitasun motaren bat iezan edo ez, diziplina bakarreko eta oinarrizko mailako irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueretan eta antzekoetan lan egin ahal izango dute, betiere prestakuntza edo esperientzia berezia badute dagokion kirol-modalitate edo -diziplinan.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa.





8. ZUZENKETA:

4.5 artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

5. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduera horiek eta antzekoak berariaz bideratzen direnean kirol-modalitate edo -diziplina bakar batera, eta teknika-hobekuntzaren eremuan edo erdiko mailan egiten direnean, honako titulu hauen bidez egiaztatu daitekeen kualifikazio bat eskatuko da:

- a) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Kirol-teknikaria.
- b) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-teknikaria.

Diziplina bakarreko erdi mailako irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueretan eta antzekoetan jardun ahal izango dute, halaber, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren bidez egiazta daitekeen kualifikazioren bat dutenek, baldin eta berariazko prestakuntza badute, dagokien kirol-modalitate edo -diziplinan.

Testu berria:

5. Kirol eta gizarte animazio- edo irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduera horiek eta antzekoak berariaz bideratzen direnean kirol-modalitate edo -diziplina bakar batera, eta teknika-hobekuntzaren eremuan edo erdiko mailan egiten direnean, honako titulu hauen bidez egiaztatu daitekeen kualifikazio bat eskatuko da:

- a) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Kirol-teknikaria.
- b) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-teknikaria.

Diziplina bakarreko erdi mailako irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueretan eta antzekoetan jardun ahal izango dute, halaber, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren bidez egiazta daitekeen kualifikazioren bat dutenek, baldin eta berariazko prestakuntza edo esperientzia badute, dagokien kirol-modalitate edo -diziplinan.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa





9. ZUZENKETA:

4.6 artikulua aldatzekoa

Jatorrizko testua:

6. Lanbide hori nolabaiteko arriskua duten jardueretan betetzeko (uretan, mendian, elurretan, airean eta natura-inguruneko beste gune batzuetan egiten diren jarduerak, baita animaliekin egiten direnak ere), titulu akademiko hauen bidez egiazta daitekeen kualifikazioren bat eskatuko da:

- a) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua.
- b) Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria.
- c) Gizarteko eta Kiroletako Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikaria.
- d) Natura-inguruneko Gorputz- eta Kirol-ekintzak Gidatzeko teknikaria.
- e) Zaldi-jardueretako teknikaria, lanbidea mugatzen denean zaldiz egiten diren ibilbideetan pertsonak gidatzera eta dinamizatza.

Lanbidea eremu horretan betetzeko, ezinbestekoa da kualifikazio hori duten pertsonak egin beharreko jardueren inguruko prestakuntza berezia edukitzea.

Honako titulu hauen bidez egiazta daitekeen kualifikazioa dutenek ere jardun ahal izango dute lanbidean eremu horretan: Kirol-teknikariaren tituluaren Erdi Mailako Hasiera Zikloaren ziurtagiria; Kirol-teknikariaren titulua, eta Goi-mailako kirol-teknikariaren titulua (natura-ingurunean edo animaliekin batera egiten den jarduerari dagokion modalitate edo diziplinako tituluak). Kasu horretan, kontuan izan behar dira artikuluko honen laugarren eta bosgarren zenbakietan ezarritako mailak edo eremuak.

Testu berria:

6. Lanbide hori nolabaiteko arriskua duten jardueretan betetzeko (uretan, mendian, elurretan, airean eta natura-inguruneko beste gune batzuetan egiten diren jarduerak, baita animaliekin egiten direnak ere), titulu akademiko hauen bidez egiazta daitekeen kualifikazioren bat eskatuko da:

- a) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua.
- b) Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria.
- c) Gizarteko eta Kiroletako Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikaria.
- d) Natura-inguruneko Gorputz- eta Kirol-ekintzak Gidatzeko teknikaria.
- e) Zaldi-jardueretako teknikaria, lanbidea mugatzen denean zaldiz egiten diren ibilbideetan pertsonak gidatzera eta dinamizatza.



Lanbidea eremu horretan betetzeko, ezinbestekoa da kualifikazio hori duten pertsonak egin beharreko jardueren inguruko prestakuntza edo esperientzia berezia edukitzea.

Honako titulu hauen bidez egiazta daitekeen kualifikazioa dutenek ere jardun ahal izango dute lanbidean eremu horretan: Kirol-teknikariaren tituluaren Erdi Mailako Hasiera Zikloaren ziurtagiria; Kirol-teknikariaren titulua, eta Goi-mailako kirol-teknikariaren titulua (natura-ingurunean edo animaliekin batera egiten den jarduerari dagokion modalitate edo diziplinako tituluak). Kasu horretan, kontuan izan behar dira artikuluko honen laugarren eta bosgarren zenbakietan ezarritako mailak edo eremuak.

Zioa:

Lege honen filosofiaren ildotik, eta pertsonak beren gaitasuna bide formal zein ez formalekin bidez egiaztatzeko kualifikazio profesionalen sistemaren ildotik, beharrezkoa da gehitzea gaitasun espezifiko hori justifikatu ahal izatea ez bakarrik formakuntza izanda, baizik eta baita ere esperientzia zehatz baten bidez.





10. ZUZENKETA:

4.7. artikulua ALDATZEKO

Jatorrizko testua:

7. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduaren bidez egiazta daitekeen kualifikazioa izan beharko da arreta berezia eskatzen duten pertsonekin gorputz- eta kirol-ekintzetan jarduteko, Kirol Monitorearen lanbidean; esate baterako, 65 urtetik gorako pertsonekin, desgaitasunen bat dutenekin eta osasun-arazoak eta antzekoak dituztenekin. Hori gorabehera, beste profesional batzuek ere baliatu ahal izango dituzte eskumenak, osasun-lanbideak antolatzeke legeriaren arabera.

Testu berria:

7. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduaren bidez egiazta daitekeen kualifikazioa izan beharko da arreta berezia -herritar guztiei zuzendutako jardueretan parte hartzea ekiditen duena- eskatzen duten pertsonekin gorputz- eta kirol-ekintzetan profesionalki jarduteko, beren Osasuna arriskuan ez jartze aldera. Gainera, dagokion populazio berezian formakuntza edo esperientzia berezia egiaztatu beharko da. Hori gorabehera, beste profesional batzuek ere baliatu ahal izango dituzte eskumenak, osasun-lanbideak antolatzeke legeriaren arabera.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza tekniko





11. ZUZENKETA:

4.7 bis artikulua GEHITZEKOA

Testu berria:

7.bis Jarduera profesionala desgaitasunen bat duten pertsonei zuzendutako jardueretan garatzen denean espezifikoki edo nagusiki, errespetatu egingo dira artikulua honetako dagozkion artikuluetan ezarritako kualifikazioak.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa.





12. ZUZENKETA:

4.9. artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

9. Era berean, inork unibertsitate-master espezifiko baten bidez edo profesionaltasun-ziurtagiri baten bidez egiaztatu ahal badu kualifikazioa daukala, Kirol Monitorearen lanbidean jardun ahal izango du titulu edo ziurtagiri horren bidez lortu dituen gaitasunak eskatzen dituzten jardueretan.

Testu berria:

9. Era berean, inork unibertsitate-master espezifiko baten bidez edo profesionaltasun-ziurtagiri baten bidez egiaztatu ahal badu kualifikazioa daukala, Kirol Monitorearen lanbidean jardun ahal izango du titulu edo ziurtagiri horren bidez lortu dituen gaitasunak eskatzen dituzten jardueretan, salbu eta bereziki edo nagusiki zuzendutakoak arreta berezia behar duten pertsoneri, artikuluko honetako zazpigarren atalean esandakoei. Disgaitasuna duten pertsoneri zuzendutako jardueren kasuan, unibertsitateko master ofizialak edo profesionalitate-ziurtagiriak ziurtatu egin beharko ditu dagokion jarduereremurako gaitasunak.

Kirol arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak arauz definitu ahal izango ditu zein jarduera profesionali ematen dioten sarbidea unibertsitateko master ofizialek eta profesionalitate-ziurtagiriek.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa.





13. ZUZENKETA:

5.2 artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

2. Jarraian azaltzen diren tituluen bidez egiazta daitekeen kualifikazioen bat eskatuko da, lanbide horretan eskola-eremuko kirolari eta taldeekin jarduteko eta kirol edo diziplina anitzeko lehiaketetan parte hartzeko, beren-beregi kirol-modalitate edo -diziplina bakar batera mugatu gabe:

- a) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua.
- b) Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria.
- c) Gizarteko eta Kiroletako Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikaria.
- d) Natura-inguruneko Gorputz- eta Kirol-ekintzak Gidatzeko teknikariaren titulua, baldin eta eskola-lehiaketa funtsean edo oso-osorik egiten bada natura-ingurune batean.

Natura-ingurunean antolatzen diren eta nolabaiteko arriskua duten diziplina anitzeko lehiaketetan lan egiteko edota animaliekin lan egiteko, ezinbestekoa izango da aurreko kualifikazio horietako batzuk egiaztatzea eta, horretaz gain, garatu beharreko jardueretan aritzeko prestakuntza espezifikoa izatea.

Testu berria:

2. Jarraian azaltzen diren tituluen bidez egiazta daitekeen kualifikazioen bat eskatuko da, lanbide horretan eskola-eremuko kirolari eta taldeekin jarduteko eta kirol edo diziplina anitzeko lehiaketetan parte hartzeko, beren-beregi kirol-modalitate edo -diziplina bakar batera mugatu gabe:

- a) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua.
- b) Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria.
- c) Gizarteko eta Kiroletako Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikaria.
- d) Natura-inguruneko Gorputz- eta Kirol-ekintzak Gidatzeko teknikariaren titulua, baldin eta eskola-lehiaketa funtsean edo oso-osorik egiten bada natura-ingurune batean.

Natura-ingurunean antolatzen diren eta nolabaiteko arriskua duten diziplina anitzeko lehiaketetan lan egiteko edota animaliekin lan egiteko, ezinbestekoa izango da aurreko kualifikazio horietako batzuk egiaztatzea eta, horretaz gain, garatu beharreko jardueretan aritzeko prestakuntza edo esperientzia espezifikoa izatea.



Zioa:

Lege honen filosofiaren ildotik, eta pertsonen beren gaitasuna bide formal zein ez formalekin bidez egiaztatzen diren kualifikazio profesionalen sistemaren ildotik, beharrezkoa da gehitzea gaitasun espezifiko hori justifikatu ahal izatea ez bakarrik formakuntza izanda, baizik eta baita ere esperientzia zehatz baten bidez.





14. ZUZENKETA:

5.3. artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

3. Kirolariek eta taldeekin lan egin behar bada lehiaketetan parte hartzeko kirol-modalitate edo -diziplina bateko oinarrizko mailan, honako ziurtagiri edo tituluen bidez egiazta daitekeen kualifikazio bat izan beharko da:

- a) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako profesionaltasun-ziurtagiria.
- b) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Kirol-teknikariaren tituluaren Erdi Mailako Hasiera- Zikloaren ziurtagiria.
- c) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Kirol-teknikaria.
- d) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-teknikaria.

Era berean, kirol-modalitate edo -diziplina bakarreko oinarrizko mailako lehiaketetan lan egin ahal izango dute bigarren zenbakian aipatzen diren titulazioen bidez egiaztatu daitekeen kualifikazioen bat duten guztiek, baldin eta, kualifikazio horrez gain, prestakuntza espezifikoa ere egiaztatzen badute dagokien kirol-modalitatean edo -diziplinan.

Testu berria:

3. Kirolariek eta taldeekin lan egin behar bada lehiaketetan parte hartzeko kirol-modalitate edo -diziplina bateko oinarrizko mailan, honako ziurtagiri edo tituluen bidez egiazta daitekeen kualifikazio bat izan beharko da:

- a) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Kirol-teknikariaren tituluaren Erdi Mailako Hasiera- Zikloaren ziurtagiria.
- b) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Kirol-teknikaria.
- c) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-teknikaria.

Txapelketa-jarduerak bereziki edo nagusiki zuzenduak daudenean disgaitasuna duten pertsoneri, jardun ahal izango dute dagokion disziplinan edo modalitatean kualifikazioa egiaztatzen dutenek, Kirol Teknikari edo Kirol Goi Teknikariaren parekoa; salbu eta kirol egokituko disziplina edo modalitateetako jarduerak, adibidez boccia, goalball edo slalom, zeintzuetan jardun ahal izango da baita ere Kirol Teknikariko Tituluko Gradu Ertainaren Hasierako Zikloko Ziurtagiriaz egiaztagarria den kualifikazioaz.

Era berean, kirol-modalitate edo -diziplina bakarreko oinarrizko mailako lehiaketetan lan egin ahal izango dute bigarren zenbakian aipatzen diren titulazioen bidez egiaztatu



daitekeen kualifikazioren bat duten guztiek, pertsonak disgaitasun motaren bat izan edo ez, baldin eta, kualifikazio horrez gain, prestakuntza edo esperientzia espezifikoak ere egiaztatzen badute dagokien kirol-modalitatean edo -diziplinan.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoak.





15. ZUZENKETA:

5.4 artikulua ALDATZEKO

Jatorrizko testua:

4. Kirolari eta taldeekin Entrenatzaile lanbidean jarduteko erdi mailako lehiaketetan, honako titulu hauen baliokide den kualifikazio bat eskatuko da:

- a) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Kirol-teknikaria.
- b) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-teknikaria.

Era berean, erdi mailako lehiaketetan jardun ahal izango dute Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua dutenek; horrez gain, prestakuntza espezifiko ere izan beharko dute.

Testu berria:

4. Kirolari eta taldeekin Entrenatzaile lanbidean jarduteko erdi mailako lehiaketetan, honako titulu hauen baliokide den kualifikazio bat eskatuko da:

- a) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Kirol-teknikaria.
- b) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-teknikaria.

Era berean, erdi mailako lehiaketetan jardun ahal izango dute Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua dutenek; horrez gain, prestakuntza edo esperientzia espezifiko ere izan beharko dute dagokion kirol disziplinan edo modalitatean.

Zioa:

Lege honen filosofiaren ildotik, eta pertsonen beren gaitasuna bide formal zein ez formalen bidez egiaztatzeko kualifikazio profesionalen sistemaren ildotik, beharrezkoa da gehitzea gaitasun espezifiko hori justifikatu ahal izatea ez bakarrik formakuntzaz, baita ere esperientzia zehatz batez.





16. ZUZENKETA:

5.5 artikulua Aldatzekoa

Jatorrizko testua:

5. Kualifikazio egiaztagarria eduki beharko da Entrenatzaile lanbidean jarduteko goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariek edo kategoria horretako lehiaketetako taldeekin. Kualifikazio hori dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-technikariaren tituluaren bidez egiaztatuko da.

Testu berria:

5. Kualifikazio egiaztagarria eduki beharko da Entrenatzaile lanbidean jarduteko goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariek edo kategoria horretako lehiaketetako taldeekin. Kualifikazio hori dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-technikariaren tituluaren bidez egiaztatuko da.

Era berean, goi mailako edo goi errendimenduko txapelketetan jardun ahal izango dute Jarduera Fisikoko eta Kiroleko Zientzietan Graduaren bidez egiaztatu daitekeen kualifikazioa dutenek, dagokion kirol modalitatean edo disziplinan formakuntza edo esperientzia dutenean.

Zioa:

Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietako lizentziatura zaharrek, gaur egun Gradu direnek, goi errendimenduko maestria edo eduki espezifikoak zituzten hainbat kirol modalitatetan. Logikoa da formakuntza espezifiko hori egiaztatzen dutenek goi mailako entrenamendura sartu ahal izatea kirol modalitate horietan.





17. ZUZENKETA:

5.6 artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

6. Animazioko kirol-jarduerak zuzendu behar badira, honako tituluen baliokidea den prestakuntza egiaztatzen dutenek ere jardun ahal izango dute lanbidean: Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria, Gizarteko eta Kiroleko Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikaria eta, zuzendaritza-lana bideratzen bada egokitzapen fisikorako jardueretara edo antzekoetara, Egokitzapen Fisikoko goi-mailako teknikariaren tituluaren baliokidea den prestakuntza egiaztatzen dutenek.

Testu berria:

Era berean, Gorputz Hezkuntzako Irakaslearen lanbidean jarduteko beharrezkoa den kualifikazioa dutenek ahalmena izango dute bigarren eta hirugarren atalean aipatutako kirol txapelketetan Entrenatzaile jarduera profesionalean aritzeko, txapelketa horiek ikastetxeen baitan antolatzen direnean eskola orduetatik kanpo, edo beste erakunde batzuetan programatzen direnak. Baina, horretarako, irakasleen kualifikazioak bateragarria izan behar du ikasleen adinarekin. Kirol-modalitate edo -diziplina bakarreko lehiaketetan edo natura ingurunean edo animaliekin egiten diren jardueretan arituz gero, bestalde, dagokion kirol-jarduerarako prestakuntza edo esperientzia espezifikoak ere eskatuko da.

Zioa:

Lege honen filosofiaren ildotik, eta pertsonen beren gaitasuna bide formal zein ez formalean bidez egiaztatzeko kualifikazio profesionalen sistemaren ildotik, beharrezkoa da gehitzea gaitasun espezifiko hori justifikatu ahal izatea ez bakarrik formakuntzaz, baita ere esperientzia zehatz batez. Horrez gain, zuzenketa teknikoak euskarazko testuan.





18. ZUZENKETA:

5.8 bis artikulua berria gehitzen da)

Testu berria:

8 bis.- Era berean, Kiroleko Entrenatzaile lanbidean jardun ahal izango dute lehiaketara zuzendutako gaitasunak ematen dien profesionalitate-ziurtagiri bidez egiaztatu dezaketen kualifikazioa duten pertsonak, gaitasuna titulu edo ziurtagiriaren bidez egiaztatu ditzaketen jardueretan, salbu eta artikulua honetako zortzigarren atalean aipatutako jarduerak. Disgaitasuna duten pertsonen zuzendutako jardueren kasuan, profesionalitate-ziurtagiriak aitortu egin beharko ditu dagokion jarduera-eremurako gaitasunak.

Kirol alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak arauz definitu ahal izango ditu profesionalitate-ziurtagiri anitzek zein jarduera profesionaletarako ematen duten sarbidea.

Zioa:

Atal espezifiko berri bat sartzea proposatzen da, non jasoko baiten dagokion jarduera profesionala gauzatu ahal izango dutela lehiaketa-esparruan gaitasunak aitortzen dituzten profesionalitate-ziurtagiriek.

Se propone la incorporación de un nuevo apartado específico en la que se recoja que los certificados de profesionalidad que otorguen competencias en materia de competición puedan ejercer la actividad profesional correspondiente.





19. ZUZENKETA:

6.1. artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

1. Kirol Zuzendariaren lanbideak ahalmena ematen du kirol-zentro, -zerbitzu, -jarduera eta -erakunde publiko nahiz pribatuetan zuzendaritza, programazio, plangintza, koordinazio, kontrol, gainbegiratze eta antzeko zereginekin zerikusia duten lanbide-jarduerak gauzatzeko, kirol-zientzietako ezagupenak eta teknikak aplikatuz. Kirol Zuzendariaren lanbide-jarduera gauzatzeko, ez dago zertan egon kirol-jarduera egiten ari den lekuan.

Testu berria:

1. Kirol Zuzendariaren lanbideak ahalmena ematen du kirol-zentro, -zerbitzu, -jarduera eta -erakunde publiko nahiz pribatuetan kirol monitoreen eta entrenatzaileen jarduera profesionaleko eta jarduera fisiko eta kirolekoen zuzendaritza, programazio, plangintza, koordinazio, kontrol, gainbegiratze, balorazio eta ebaluazio eta antzeko zereginekin zerikusia duten lanbide-jarduerak gauzatzeko, kirol-zientzietako ezagupenak eta teknikak aplikatuz. Kirol Zuzendariaren lanbide-jarduera gauzatzeko, ez dago zertan egon kirol-jarduera egiten ari den lekuan.

Zioa:

Funtzio horrek lagun dezake argitzen eta bereizten kudeatzaileak –ez daudenak lege honek eraginda- eta kirol zuzendariak –legeak eraginda daudenak-.





20. ZUZENKETA:

6.2 artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

2. Jarduera edo zerbitzu integral, orokor eta diziplina edo kirol anitzekoetan Kirol Zuzendariaren lanbidea gauzatzeko (berariaz kirol-modalitate edo -diziplina bakar batean murgildu gabe), beharrezkoa izango da kualifikazio egiaztagarria edukitzea. Kualifikazio hori Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduaren bidez egiaztatuko da.

Testu berria:

2. Jarduera edo zerbitzu integral, orokor eta diziplina edo kirol anitzekoetan, edo jarduera fisikoko eta kiroleko zientzietako ezagutza generikoak aplikatzen direnetan, Kirol Zuzendariaren lanbidea gauzatzeko (berariaz kirol-modalitate edo -diziplina bakar batean murgildu gabe), beharrezkoa izango da kualifikazio egiaztagarria edukitzea. Kualifikazio hori Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduaren bidez egiaztatuko da.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa.





21. ZUZENKETA:

6.3 eta 6.5 ALDATZEKO eta 6.4 EZABATZEKO

Jatorrizko testua:

3. Kirol-modalitate edo -diziplina bakarreko kirol-hastapena edo oinarrizko maila zuzendu behar bada, kirol-modalitate edo -diziplina horretako prestakuntza espezifikoa egiaztatu beharko da aurrekoen gain.
4. Teknika-hobekuntzako edo erdi-mailako jarduerak zuzendu behar badira, prestakuntza espezifiko bat ere egiaztatu beharko da; edo, bestela, kualifikazio egiaztagarria eduki beharko da, hots, dagokion kirol- modalitate edo -diziplinako Kirol-technikariaren tituluaren bidez egiaztatuko den kualifikazioa.
5. Errendimendu handiko jarduera edo zerbitzuetan Kirol Zuzendariaren lanbidea gauzatzeko, kualifikazio egiaztagarria eduki beharko da. Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-technikariaren tituluaren bidez egiaztatuko da kualifikazio hori. Kualifikazio hori egiaztatzen dutenek oinarrizko mailako eta erdi-mailako kirol-jardueretan ere gauzatu ahal izango dute lanbidea.

Testu berria:

3. Kirol-modalitate edo -diziplina bakarreko kirol-hastapena edo oinarrizko maila zuzendu behar bada, kirol-modalitate edo -diziplina horretako prestakuntza edo esperientzia espezifikoa egiaztatu beharko da dagozkien mailan aurrekoen gain.
5. Kirol modalitate edo disziplina bakarrera zuzendutako Kirol Zuzendariaren lanbidea gauzatzeko, kualifikazio egiaztagarria eduki beharko da. Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Goi-mailako kirol-technikariaren tituluaren bidez egiaztatuko da kualifikazio hori.

Zioa:

Batetik, uste da Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzien Gradua dutenek, dagozkien kirol modalitatean goi errendimenduan prestakuntza edo esperientzia izan dutenek, beharrezko gaitasunak dituztela modalitate horretan goi errendimenduko zuzendaritza lanak egiteko.





Laugarren atala ezabatuta, bi titulaziok emango dute sarbidea kirol disziplina bakarrearan kirol zuzendaritzarako kualifikazioa lortzeko: Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzien Graduak esperientzia edo prestakuntza espezifikoarekin batera, eta Kirol Goi Teknikariko tituluak.





22. ZUZENKETA

6.6 artikuluan testua GEHITZEKOA

Jatorrizko testua:

Animazioko kirol-jarduerak zuzendu behar badira, honako tituluen baliokidea den prestakuntza egiaztatzen dutenek ere jardun ahal izango dute lanbidean: Gorputz-eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria, Gizarteko eta Kiroleko Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikaria eta Egokitzapen Fisikoko goi-mailako teknikaria.

Testu berria:

Animazioko kirol-jarduerak zuzendu behar badira, honako tituluen baliokidea den prestakuntza egiaztatzen dutenek ere jardun ahal izango dute lanbidean: Gorputz-eta Kirol-ekintzen Animazioko goi-mailako teknikaria, Gizarteko eta Kiroleko Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikaria eta, egokitze fisikoko edo antzeko jardueren gaineko zuzendaritza kasuan, Egokitzapen Fisikoko goi-mailako teknikaren pareko prestakuntza egiaztatzen dutenak.

Zioa:

Zuzenketa teknikoa.





23. ZUZENKETA:

6.7. artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

7. Era berean, Gorputz Hezkuntzako Irakaslearen lanbidean jarduteko beharrezkoa den kualifikazioa dutenek ahalmena izango dute eskolako kirol-jarduerak sustatu, planifikatu, programatu, koordinatu, ebaluatu edo zuzentzeko, bai ikastetxeetan ikastorduetatik kanpo egiteko programatzen direnak, bai beste erakunde batzuetan programatzen direnak. Baina, horretarako, irakasleen kualifikazioak bateragarria izan behar du ikasleen adinarekin. Kirol-modalitate edo -diziplina bakarreko lehiaketetan edo natura-ingurunean edo animaliekin egiten diren jardueretan arituz gero, bestalde, dagokion kirol-jarduerarako prestakuntza espezifiko ere eskatuko da.

Testu berria:

7. Era berean, Gorputz Hezkuntzako Irakaslearen lanbidean jarduteko beharrezkoa den kualifikazioa dutenek ahalmena izango dute eskolako kirol-jarduerak sustatu, planifikatu, programatu, koordinatu, ebaluatu edo zuzentzeko, bai ikastetxeetan ikastorduetatik kanpo egiteko programatzen direnak, bai beste erakunde batzuetan programatzen direnak. Baina, horretarako, irakasleen kualifikazioak bateragarria izan behar du ikasleen adinarekin. Kirol-modalitate edo -diziplina bakarreko jardura edo lehiaketetan edo natura-ingurunean edo animaliekin egiten diren jardueretan arituz gero, bestalde, dagokion kirol-jarduerarako prestakuntza edo esperientzia espezifiko ere eskatuko da.

Zioa:

Hezkuntza Fisikoko irakasleak kirol zuzendariaren lanbidean jardun ahal izango du, bai lehiaketetako jardueretan, bai lehiaketa ez direnetan.

Bestalde, Lege honen filosofiaren ildotik, eta pertsonak beren gaitasuna bide formal zein ez formalen bidez egiaztatzeko kualifikazio profesionalen sistemaren ildotik, beharrezkoa da gehitzea gaitasun espezifiko hori justifikatu ahal izatea ez bakarrik formakuntzaz, baita ere esperientzia zehatz batez. Así, por ejemplo, profesor de educación física que acredite una experiencia deportiva de 10 años en tenis de mesa estará perfectamente capacitado para ejercer en la iniciación de la esta modalidad, por mucho que no haya cursado una formación específica en la misma.





24. ZUZENKETA:

7.4. artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

4. Errendimendu handiko kirolariek, lege honetan ezarritako kualifikaziorik ez badute ere, Kirol Monitorearen edo Entrenatzailearen jarduerak egin ahal izango dituzte, noizbehinka, euren kirol-modalitate edo diziplinan, betiere une oro euren alboan baldin badute dagokion jarduerarako eskatzen den kualifikazioa duen norbait.

Testu berria:

4. Errendimendu handiko kirolariek, lege honetan ezarritako kualifikaziorik ez badute ere, Kirol Monitorearen edo Entrenatzailearen jarduerak egin ahal izango dituzte, noizbehinka, euren kirol-modalitate edo diziplinan, betiere une oro euren alboan baldin badute dagokion jarduerarako eskatzen den kualifikazioa duen norbait.

Zioa:

Akatsa gaztelaniazko testuan.





25. ZUZENKETA:

10.1 artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

1. Lege honek arautzen dituen lanbideetan sartzeko eta jarduteko, derrigorrezko baldintza izango da dagokion elkargo profesionalean sartzea, baldin eta estatuko kasuan kasuko legeek hala ezartzen badute. Kasu horretan, kasuan kasuko elkargo profesionalak elkargokideei buruzko informazioa eman behar dio Kirol-arloko Profesionalen EAEko Erregistroari: izen-abizenak eta lanbide-kualifikazioari buruzko datuak.

Testu berria:

1. Lege honek arautzen dituen lanbideetan sartzeko eta jarduteko, derrigorrezko baldintza izango da dagokion elkargo profesionalean sartzea, baldin eta estatuko kasuan kasuko legeek hala ezartzen badute. Kasu horretan, kasuan kasuko elkargo profesionalak elkargokideei buruzko informazioa eman behar dio Kirol-arloko Profesionalen EAEko Erregistroari, gutxienez: izen-abizenak eta lanbide-kualifikazioari buruzko datuak.

Zioa:

Idazkera berriaren ondorioz, ez da aukera ixten arau bidez garrantzitsua den informazio gehiago eskatzeko aukera.





26. ZUZENKETA

10.2 artikulua ALDATZEKO

Jatorrizko testua:

2. Lanbidean jardun nahi duten gainerako profesionalek, baldin eta lege honetan araututako lanbideetako edozeinetan jarduteko eskatzen den kualifikazioa badaukate, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar dute Kirol-arloko Profesionalen EAEko Erregistroan. Adierazpen horretan, honako datu hauek jaso behar dituzte: izen- abizenak eta lanbide-kualifikazioari buruzko datuak.

Testu berria:

2. Lanbidean jardun nahi duten gainerako profesionalek, baldin eta lege honetan araututako lanbideetako edozeinetan jarduteko eskatzen den kualifikazioa badaukate, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar dute Kirol-arloko Profesionalen EAEko Erregistroan. Adierazpen horretan, honako datu hauek jaso behar dituzte, gutxienez: izen-abizenak eta lanbide-kualifikazioari buruzko datuak.

Zioa:

Idazkera berriaren ondorioz, ez da aukera ixten arau bidez garrantzitsua den informazio gehiago eskatzeko aukera.





27. ZUZENKETA:

11.1 artikuluko m letra ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

m) Lankidetzak aktiboan jardun behar dute kirolariei errendimendu edo osasun hobea izaten lagun diezaieketen beste profesionalekin.

Testu berria:

m) Lankidetzak aktiboan jardun behar dute kirolariei errendimendu edo osasun hobea izaten lagun diezaieketen beste profesionalekin, ekidinez disfuntzioak edo disgaitasun somatikoak dituzten pertsonen berreskuratze- eta birgaitze-zerbitzuak ematea fisioterapeutei dagozkien eginkizun profesional propioen baliabide eta eragile fisikoak darabiltzaten tratamenduen bidez.

Zioa:

Zuzenketa honen helburua da Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoak adierazitako zalantzak uxatzea, eta argi uztea Lege honek kiroleko profesionalei aitortzen dizkien eginkizunak osasunaren esparruan zeharo errespetatzen dituztela Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen eginkizunak, fisioterapeutei aitortzen dizkienak. Gehitzea proposatzen den testuak bere horretan dakar aipatutako Estatuko Legeko 7.2.b artikulua, eta beraz, testuak ez luke bestelako inolako gatazkarik sortu beharko.





28. ZUZENKETA:

19.3. artikulua ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

3. Kirol-zentroetako, gimnasioetako eta kirol-zerbitzuak ematen dituzten beste edozein instalaziotako titularren ardura izango da erabiltzaileei informazio argia eta erraz ikusteko modukoa ematea, kirol-arloko profesionalen lanbide-kualifikazioari buruz.

Testu berria:

3. Kirol-zentroetako, gimnasioetako eta kirol-zerbitzuak ematen dituzten beste edozein zerbitzu edo instalaziotako titularren ardura izango da erabiltzaileei informazio argia eta erraz ikusteko modukoa ematea, kirol-arloko profesionalen lanbide-kualifikazioari buruz.

Zioa:

Ez lirateke kirol instalazioak (gimnasioak edo kirolguneak) bakarrik aipatu behar, baita ere beste edozein kirol erakunde, profesional edota pertsona boluntarioen bidez zerbitzuak eskaintzen dituenak: federazioak, kirol elkarteak, ikastetxeak, administrazio publikoak, eta abar.





29. ZUZENKETA:

Bigarren xedapen gehigarriari bigarren atala GEHITZEKOA

Jatorrizko testua:

Bigarren xedapen gehigarria. Berdintasun-politikak eta euskararen erabilera normalizatzeko politikak kirol-arloko lanbideetan

Lege honetan arautzen diren lanbideetan sartzeko eta jarduteko orduan tratu- eta aukera berdintasuna egoteko politikak sustatuko ditu Eusko Jaurlaritzak, beste administrazio publikoekin, kasuan kasuko elkargo-antolamenduarekin, kirol-federazioekin eta antzeko beste kirol-erakundeekin lankidetzan.

Testu berria:

Bigarren xedapen gehigarria. Berdintasun-politikak eta euskararen erabilera normalizatzeko politikak kirol-arloko lanbideetan

1. Lege honetan arautzen diren lanbideetan sartzeko eta jarduteko orduan tratu- eta aukera berdintasuna egoteko politikak sustatuko ditu Eusko Jaurlaritzak, beste administrazio publikoekin, kasuan kasuko elkargo-antolamenduarekin, kirol-federazioekin eta antzeko beste kirol-erakundeekin lankidetzan.
2. Kirol federazioek eta kirol jarduerak antolatzen dituzten gainontzeko erakundeek ezingo dute, Legea indarrean sartu eta hurrengo denboralditik Aurrera, kualifikazio desberdinik eskatu txapelketa-maila bereko gizonen eta emakumeen txapelketetarako. Une horretatik aurrera, indargabetu egingo dira sexu arrazoiagatik kualifikazio-premia txikiagoa duten xedapenak.

Zioa:

Ez lirateke kirol instalazioak (gimnasioak edo kirolguneak) bakarrik aipatu behar, baita ere beste edozein kirol erakunde, profesional edota pertsona boluntarioen bidez zerbitzuak eskaintzen dituenak: federazioak, kirol elkarteak, ikastetxeak, administrazio publikoak, eta abar.





30. ZUZENKETA:

Laugarren xedapen gehigarria aldatzekoa

Jatorrizko testua:

Laugarren xedapen gehigarria. Lanbideetan sartzeko eta jarduteko kualifikazioak egiaztatzea

Lanbideetan sartzeko eta jarduteko, lege honek adierazitako titulu akademiko eta ziurtagirien bidez egiaztatutako kualifikazioak baliatu daitezke. Eusko Jaurlaritzako sail eskumendunek ezarriko dituzte aipatutako titulu eta ziurtagiriez bestelako bideetatik eskuratutako kualifikazioak egiaztatzeko kasu, baldintza eta prozedurak.

Testu berria:

Laugarren xedapen gehigarria. Lanbideetan sartzeko eta jarduteko kualifikazioak egiaztatzea

- 1.- Lanbideetan sartzeko eta jarduteko, lege honek adierazitako titulu akademiko eta ziurtagirien bidez egiaztatutako kualifikazioak baliatu daitezke.
- 2.- Lege hontan jasotako lanak ere egin ahal izango dira lan esperientziaz edo bestelako ikasketa formalaz edo ez formalaz lortutako gaitasun profesionalak aitortzearen bidez, lan-esperientziaren bitartez eskuratutako lanbide-konpetentziak onartzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Erret Dekretuan jasotakoaren arabera Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionalean jasotakoak edo, bere kasuan, esperientziaren bidez edo beste bide ez formalean bidez lortutako gaitasunei dagozkien beste arau xedapen batzuetan.
- 3.- Eusko Jaurlaritzako kiroleko sail eskumendunak, konpetentziak aitortzeko alorrean eskumena duten sailekin kolaboratuta, ezarriko dituzte aipatutako titulu eta ziurtagiriez bestelako bideetatik eskuratutako kualifikazioak egiaztatzeko kasu, baldintza, epe eta prozedurak.

Zioa:





Alde batetik, argitasun handiagoz azaldu nahi da dagoen aukera dagokion kualifikazioa egiaztatzeko, tituluak eta ziurtagiriak ez diren bide desberdinetatik, adibidez, esperientziatik.

Bestalde, badaude zenbait kualifikazio gaur gaurkoz ez dutenak titulu akademiko baten edo profesionalitate ziurtagiri baten bidez ziurtatuak izateko aukerarik, baina bai kompetentzien akreditazioaz. Proposamen berriak kiroleko lanbideetan jarduteko aukera jasotzen du tituluarekin edo ziurtagiriarekin lotu gabeko kompetentzien akreditazioaren bidez, orain arte jaso gabeko kontua.

Azkenik, kirol arloan eskumena duten sailari egokitzen zaio aurretiaz jasotako kompetentziak aitortzeko arauak eta prozedurak definitzea, eta baita dagozkien epeak ere.





31. ZUZENKETA:

Bosgarren xedapen gehigarria ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

Bosgarren xedapen gehigarria. Prestakuntza espezifikoa

1. Testu artikulatuan zehar eskatzen den prestakuntza egiaztatzeko, printzipioz, titulu, ziurtagiri edo prestakuntza ofizialak erabiliko dira, unibertsitateko masterrak eta profesionaltasun-ziurtagiriak barne.
2. Onartu ahal izango dira, halaber, amaitu gabeko prestakuntza ofizialak, hau da, titulu edo ziurtagiri ofizial baten zati bati dagozkionak.
3. Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak prestakuntza espezifikokoaren maila zehaztu ahal izango du kasu jakin batzuetan.
4. Prestakuntza-eskaintza ofizialik ez dagoen edo eskaintza hori nahikoa ez den kasuetan bakarrik sustatu edo/eta onartu ahal izango ditu kirol-arloko eskumena duen sailak gutxieneko kalitate-baldintzak betetzen dituzten prestakuntza, titulu edo ziurtagiri ez-ofizialak.

Testu berria:

Bosgarren xedapen gehigarria. Prestakuntza edo esperientzia espezifikoa

1. Testu artikulatuan zehar eskatzen den prestakuntza egiaztatzeko, printzipioz, titulu, ziurtagiri edo prestakuntza ofizialak erabiliko dira, unibertsitateko masterrak eta profesionaltasun-ziurtagiriak barne.
2. Onartu ahal izango dira, halaber, amaitu gabeko prestakuntza ofizialak, hau da, titulu edo ziurtagiri ofizial baten zati bati dagozkionak.
3. Prestakuntza-eskaintza ofizialik ez dagoen edo eskaintza hori nahikoa ez den kasuetan bakarrik sustatu edo/eta onartu ahal izango ditu kirol-arloko eskumena duen sailak gutxieneko kalitate-baldintzak betetzen dituzten prestakuntza, titulu edo ziurtagiri ez-ofizialak.
4. Testu artikulatuan zehar aipatutako exijitutako esperientzia espezifikoak balio du esperientzia profesionalerako eta kirol esperientziarako.
5. Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak arauz zehaztuko du prestakuntza eta esperientzia espezifikoa ziurtatzeko baldintzak eta modua.

Zioa:





Lege proiektuan zehar hainbat aldiz ezartzen da izaera orokorreko kirol titulazioan oinarritutako kualifikazioa duten pertsonen ere betebeharra izatea dadgokion modalitateko prestakuntza espezifikoa izatea. Kirol jarduera edo modalitate bateko gaitasunak, testuko bigarren artikuluko bosgarren atalean ondo jasota dagoenez, prestakuntza formaleko bidetik lortu daitezke, edo esperientziaren edo prestakuntza ez formalaren bidetik, eta jarduera zehatz batean praktika profesionalak edo kirolekoak, ezbairik gabe, zenbait konpetentzia ematen ditu kirol jarduera edo modalitate horretan. Horrek behartzen du kasuan kasu eskatuko den prestakuntza espezifikoaren ezaugarriak definitzera.





32. ZUZENKETA:

Seigarren Xedapen Gehigarria ALDATZEKO

Jatorrizko testua:

1. Lege honen arabera, hauek izango dira kirol-hastapeneko edo oinarrizko mailako jarduerak: kirola egiten dutenek edo kirolariek, edozein adin izanda ere, jarduera ikasteko aurreneko faseetan egiten dituztenak.

Testu berria:

1. Lege honen arabera, hauek izango dira kirol-hastapeneko edo oinarrizko mailako jarduerak: kirola egiten dutenek edo kirolariek, edozein adin izanda ere, jarduera ikasteko aurreneko faseetan egiten dituztenak, eta baita ere nagusiki aisialdiko izaera duten horiek ere, txapelketakoak edo ez, konplexutasun maila handirik gabe.

Zioa:

Jarduera asko daude nagusiki aisialdi-izaera dutenak, jardueraren nolabaiteko ezagutza dutenek garatzen dituztenak (aisialdi izaerako futbol edo saskibalo txapelketak, esaterako) eta, beraz, ez daudela prestakuntzako lehen faseetan, baina konplexutasun edo exijentzia maila alturik ez duten jarduerak dira, eta oinarrizko mailako prestakuntza duten entrenatzaile edota monitoreek egin dezakete.





33. ZUZENKETA:

Zazpigarren xedapen gehigarria ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

Zazpigarren xedapen gehigarria. Eskola-adinean dauden kirolariek in jarduerak egiteko prestakuntza

1. Eskola-adinean dauden kirolariek in kirol-jarduerak egiten dituzten monitoreentzat eta entrenatzaileentzat titulu ofizial edo profesionaltasun-ziurtagiri espezifikorik ez badago edo daudenak nahikoak ez badira, Eusko Jaurleritza in kirolaren arloko eta kualifikazioen arloko eskumenak dituzten sailek prestakuntza-ekintza espezifikoak sustatuko dituzte elkarrekin, eskola-adinean dauden kirolariek in lan egiten duten pertsonentzat.
2. Eskaintako prestakuntza-jarduerak moduluko eskaintza ahalbidetuko dute, eta behin horiek gaindituta, dagozkion egiaztagiriak lortuko dira.
3. Prestakuntza horiek gainditu izana egiaztatzen dutenek, eskola-kiroleko kirol anitzeko jardueretan monitore eta entrenatzaile izateko gaikuntza izango dute. Halaber, modalitate bakar batera bideratuta dauden eta kirol-hastapenekoak edo oinarriko mailakoak diren eskola- kiroleko jardueretan aritu daitezke, baldin etaprestakuntza-jarduerak dagozkion diziplinako modulu espezifikoak izan baditu.

Testu berria:

Zazpigarren xedapen gehigarria. Eskola-adinean dauden kirolariek in multikiroleko jarduerak egiteko prestakuntza

1. Eskola-adinean dauden kirolariek in kirol-jarduerak egiten dituzten monitoreentzat eta entrenatzaileentzat titulu ofizial edo profesionaltasun-ziurtagiri espezifikorik ez badago edo daudenak nahikoak ez badira, Eusko Jaurleritza in kirolaren arloko eta kualifikazioen arloko eskumenak dituzten sailek prestakuntza-ekintza espezifikoak sustatuko dituzte elkarrekin, eskola-adinean dauden kirolariek in lan egiten duten pertsonentzat.
2. Eskaintako prestakuntza-jarduerak moduluko eskaintza ahalbidetuko dute, eta behin horiek gaindituta, dagozkion egiaztagiriak lortuko dira.
3. Prestakuntza horiek (lehen atalean jasotakoak edo kualifikazio berrikoak edo multikirol izaerako profesionalitate-ziurtagiri ofizialak) gainditu izana egiaztatzen dutenek, eskola-kiroleko kirol anitzeko jardueretan monitore eta entrenatzaile izateko gaikuntza izango dute. Halaber, modalitate bakar batera bideratuta dauden eta kirol-hastapenekoak edo oinarriko



mailakoak diren eskola- kiroleko jardueretan aritu daitezke, baldin eta dagokion disziplinan prestakuntza edo esperientzia espezifikoak baldin baditu.

Zioa:

Lehenik eta behin prestakuntzaren “multikirol” ezaugarria sartzen da izenburuan. Helburua da zalantza izpirik ez uztea eskolako kiroleko beste aldi baterako prestakuntza batzuekiko.

Ezabatu egiten da lehen atalean prestakuntza polideportiboak sortzeko betebeharra.

Beste alde batetik, jasotzen da multikiroleko prestakuntza horiek gaituko dutela eskola adinean multikiroleko txapelketarako ekintzetan jarduteko (5.2 artikulua).

Gainontzeko artikuluen ildo beretik, esperientziaren bidez jasotako kualifikazioa ere ontzat hartzen da.





34. ZUZENKETA:

Zortzigarren xedapen gehigarriko laugarren atal berri bat GEHITZEKOA

Testu berria:

4.- Lehen eta bigarren ataletan aipatutako prestakuntzak gainditu ondorengo ziurtagiri edo tituluak lortzen dituzten pertsonak jarduera profesionaletan aritu ahal izango dira, dagozkien kirol modalitate edo disziplinan eta dagozkien mailetan.

Zioa:

Modu horretan jasotzen da xedapeneko lehen eta bigarren ataletan jasotako prestakuntzek –kirol irakaskuntza sistema ofizialetik kanpo egindako prestakuntzek- jarduera profesionala ahalbidetuko luketela. Bestela, ez litzateke islatuta geratuko, eta beraz, gatazka juridikoa sor lezake.





35. ZUZENKETA:

Bederatzigarren xedapen gehigarriko bigarren atala ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

2. Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuak dituzten langileek izena eman beharko dute Kirol-arloko Profesionalen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan.

Testu berria:

2. Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuak dituzten langileek ardura-adierazpena aurkeztu beharko dute gero izena emateko Kirol-arloko Profesionalen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan.

Zioa:

Euskadiko Kiroleko Profesionalen Erregistrorako, dagokiona da formakuntza duala (prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuak) garatzen duten langileek profesionalen tratu bera izatea, modu horretan ardura adierazpen bat baino aurkeztu beharko ez dutelarik, gero izena emate aldera.





36. ZUZENKETA:

Hamargarren xedapen gehigarriko lehen atala ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

Hamargarren xedapen gehigarria. Kirol-teknikariaren titulazioaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren titulazioaren baliokideak diren kualifikazioak

1. Kirol-teknikariaren eta Goi-mailako kirol teknikariaren titulazio akademikoei egiten zaizkien aipamenak (lege honetan ezarri dira titulu horiek) honako prestakuntza hauetatik eratorritako titulazioetara heda daitezke:

- a) Aldi iragankorreko kirol-prestakuntzak.
- b) Kirol-teknikariaren eta Goi-mailako kirol-teknikariaren titulua duten modalitate edo espezialitateetan, lehenagoko prestakuntza federatiboak, indarreko legeriaren arabera onar daitezkeenak.
- c) Kirol-teknikariaren eta Goi-mailako kirol-teknikariaren titulurik ez duten modalitate edo espezialitateetan, lehenagoko prestakuntza federatiboak, aldi iragankorreko kirol-prestakuntzetara sartzeko edo gerora onartzeko aukera dutenak.

Testu berria:

Hamargarren xedapen gehigarria. Kirol-teknikariaren titulazioaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren titulazioaren baliokideak diren kualifikazioak

1. Kirol-teknikariaren eta Goi-mailako kirol teknikariaren titulazio akademikoei egiten zaizkien aipamenak (lege honetan ezarri dira titulu horiek) honako prestakuntza hauetatik eratorritako titulazio baliokideetara ere heda daitezke:

- a) Aldi iragankorreko kirol-prestakuntzak, otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduan edo dagokion arau-xedapenean oinarrituta araututakoak.
- b) K2002ko abenduaren 31ra arte sustatutako formazio federatiboak.
2002ko abenduaren 31z geroztik sustatutako formazio federatiboak, dagozkien aitortza jaso dutenek Kiroletarako Goi Batzordearen ebazpen bidez.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa.





37. ZUZENKETA:

Hamargarren xedapen gehigarriko bigarren atala ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

2. Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak epe bat jarri ahal izango du aipatutako prestakuntza horietakoren bat dutenei lanbide-baliokidetasuna aitortzeko, Kirol-teknikariaren edo Goi-mailako kirol-teknikariaren tituluarekiko.

Testu berria:

2. Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak epe bat jarri ahal izango du aipatutako prestakuntza horietakoren bat dutenei lanbide-baliokidetasuna aitortzeko, Kirol-teknikariaren edo Goi-mailako kirol-teknikariaren tituluarekiko.

Zioa:

Berdintasuneko hizkeran hobekuntza, gaztelaniazko testuan.





38. ZUZENKETA:

Hamabigarren xedapen gehigarri berria GEHITZEA

Testu berria:

1.- Hezkuntza, enplegu eta kirol esparruetan eskumena duten administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte, azken seigarren xedapeneko bigarren atalean ezarritako epean indarrean sar dadin formakuntza eskaintza publikoa, Lege honetan jasotako kiroleko lanbideen kualifikazio-beharrak asetuko dituena.

2.- Era berean, Lege honetan jasotako prestakuntzetan, euskal administrazioek kurrikulum-garapenerako eskumena dutenetan, bermatu egingo da kiroleko osasun eta segurtasuna sustatzera bideratutako edukien presentzia, eta 11.artikulu jasotako ariketa profesionalaren eginbeharren betekizunena.

3.- Eusko Jaurlaritzak neurriak hartuko ditu kirol formakuntzetan formakuntza-edukiak txerta daitezten kirolean disgaitasuna duten pertsonen inklusioari dagokionez, kirolean berdintasuna sustatzeari dagokionez eta sexu gehiegikeria edo jazarpeneko edo Lege honetan araututako lanbideetan dihardutenen zerbitzuen helmuga diren adin txikikoen aurkako beste mota batetako balizko kasuen aurrean reaktionatzeko eta horiek prebenitzeko.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa.





39. ZUZENKETA

Lehen xedapen iragankorreko lehen atala ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

1. Kirol-arloko profesionalek lan-eskarmentuaren bidez edo prestakuntza ez-formalaren bidetik eskuratutako gaitasunak egiaztatzeko administrazio-prozedurak ezartzen ez diren bitartean, kasuan kasuko lanbidean jarduteko gaikuntza izango dute erregelamenduz ezarritako moduan hau egiaztatzen dutenek: lege hau indarrean sartu zenean, modu jarraituan -eta ez noizean behin- aritzen zirela araututako lanbide-jardueretan. Nolanahi ere, gaikuntza hori mugatuko da erakunde berean edo beste batean zeukaten zeregin edo mailara, eta ez du balioko entrenatzaile moduan jarduteko dagokion kualifikazioa izatea eskatzen duten kirol- federazioetarako, erregelamenduz hala ezarri badute.

Testu berria:

1. Kirol-arloko profesionalek lan-eskarmentuaren bidez edo prestakuntza ez-formalaren bidetik eskuratutako gaitasunak egiaztatzeko administrazio-prozedurak ezartzen ez diren bitartean, kasuan kasuko lanbidean jarduteko gaikuntza izango dute erregelamenduz ezarritako moduan hau egiaztatzen dutenek: lege hau indarrean sartu zenean, modu jarraituan -eta ez noizean behin- aritzen zirela araututako lanbide-jardueretan. Nolanahi ere, gaikuntza hori mugatuko da erakunde berean edo beste batean zeukaten zeregin edo mailara, eta ez du balioko entrenatzaile moduan jarduteko dagokion kualifikazioa izatea eskatzen duten kirol- federazioetarako, erregelamenduz hala ezarri badute. Kirol alorrean eskumena duen sailak arauz ezarriko du gaitze horren baldintzak, bereziki ardura adierazpenaren aurkezpena eta egiaztatu beharreko gutxieneko orduak.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa.





40. ZUZENKETA:

Lehen xedapen iragankorreko bigarren atala ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

2. Halaber, eskola-kiroleko kirol-anitzeko jardueretan monitore eta entrenatzaile moduan jarduteko gaikuntza izango dute lege hau indarrean jarri aurretik foru aldundiek eskola-kirolerako eskainitako prestakuntza- ekintzak gainditu dituztenek.

Testu berria:

2. Halaber, eskola-kiroleko kirol-anitzeko jardueretan monitore eta entrenatzaile moduan jarduteko gaikuntza izango dute foru aldundiek eskola-kirolerako eskainitako prestakuntza-ekintzak gainditu dituztenek, betiere, formakuntza jarduera horien gainditzea 2019ko abuztuaren 31 baino lehenago ematen denean. Era berean, eskolako kiroleko jardueretan gaituta geratuko dira kirolean hasteko eremuan edo oinarrizko mailan, modalitate bakarrera orientatuta, betiere, gainera, prestakuntza edo esperientzia espezifikoa baldin badute.

Zioa:

Foru aldundiek hainbat urte daramatzateko formakuntza jarduera ez formalak antolaten, eskoletako monitoreen prestakuntzara zuzenduak. Legea onartzeko data jakina ez denez, dagokiona da prestakuntzak gainditzen dituzten pertsonen, 2018/2019 ikasturterako foru aldundiek planifikatutakoek, aldi baterako gaitzea izatea, betiere 2019ko abuztuaren 31 baino lehen prestakuntza-jarduera gainditzen badute.

Bestalde, eta artikuluen ildo beretik, ezartzen da modalitate zehatz bat egin ahal izateko, formakuntza edo esperientzia berezia izan behar dela.





41. ZUZENKETA:

Lehen xedapen iragankorreko hirugarren atala ALDATZEKO

Jatorrizko testua:

3. Eusko Jaurlaritzako sail eskudunek ezarriko dituzte kirol-arloko profesionalek lan-eskarmentuaren bidez edo prestakuntza ez-formalaren bidetik eskuratutako gaitasunak egiaztatzeko administrazio-prozedurak. Lehenengo eta bigarren zenbakian aipatutako egoeran daudenek gaikuntza eskuratu beharko dute, erregelamenduz ezarriko den epean.

Testu berria:

3. Eusko Jaurlaritzako sail eskudunek ezarriko dituzte kirol-arloko profesionalek lan-eskarmentuaren bidez edo prestakuntza ez-formalaren bidetik eskuratutako gaitasunak egiaztatzeko administrazio-prozedurak. Lehenengo, bigarren eta seigarren zenbakian aipatutako egoeran daudenek gaikuntza eskuratu beharko dute, erregelamenduz ezarriko den epean.

Zioa:

Aldi baterako gaitutako beste pertsonak bezalaxe, gaitasunak egiaztatzeko dagozkien prozedurak egin beharko dituzte.





42. ZUZENKETA:

Lehen xedapen iragankorreko laugarren atala ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

4. Lehenengo zenbakian ezarritako gaikuntzari buruz esandakoa eragotzi gabe, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak baliorik gabe utzi ahal izango du lanbidean jarduteko gaikuntza, baldin eta, jarduerak nolako ezaugarriak dituen kontuan hartuta, ikusten bada lanbidean kualifikaziorik gabe jarduteak arrisku zuzen eta larrian jartzen duela pertsonen osasuna eta segurtasuna. Horregatik, ezaugarri horiek dituzten lanbide-jardueren zerrenda egingo du aipatu sailak.

Testu berria:

4. Lehenengo eta bigarren zenbakian ezarritako gaikuntzari buruz esandakoa eragotzi gabe, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak baliorik gabe utzi ahal izango du lanbidean jarduteko gaikuntza, baldin eta, jarduerak nolako ezaugarriak dituen kontuan hartuta, ikusten bada lanbidean kualifikaziorik gabe jarduteak arrisku zuzen eta larrian jartzen duela pertsonen osasuna eta segurtasuna. Horregatik, ezaugarri horiek dituzten lanbide-jardueren zerrenda egingo du aipatu sailak.

Zioa:

Foru aldundiek eskaintzen duten prestakuntzak ez du gaitasunik ematen izaera konplexuko zenbait jarduerarako, adibidez, parapentea, hipika, surfa, kirol buzeroa, eta abar.





43. ZUZENKETA:

Lehen Xedapen Iragankorreko 5. atala ALDATZEA eta seigarrena GEHITZEA

Jatorrizko testua:

5. Behin-behinean, harik eta kasuan kasuko federazio espainiarrak edo nazioartekoak baimena ematen duen arte, bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritako errendimendu handiko lehiaketetan entrenatzaile-lanak egiteko lege honetan eskatzen den kualifikaziorik gabe, automatikoki lortuko dute gaikuntza kasuan kasuko federazio espainiar edo nazioartekoak eskatzen duen titulazio gorena duten pertsonak. Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak baliorik gabe utz dezake gaikuntza hori kirol-modalitate edo diziiplina batzuetan.

Testu berria:

5. Harik eta kasuan kasuko federazio espainiarrak edo nazioartekoak baimena ematen duen bitartean, seigarren xedapen gehigarrian ezarritako errendimendu handiko lehiaketetan entrenatzaile-lanak edo kirol zuzendari lanak egiteko Lege honetan eskatzen den kualifikaziorik gabe, automatikoki lortuko dute gaikuntza kasuan kasuko federazio espainiar edo nazioartekoak eskatzen duen titulazio gorena duten pertsonak.

6. Aldian aldirako gaituta geratuko dira baita ere monitore, entrenatzaile edo kirol zuzendari jarduerarako, Lege hau indarrean sartu aurretik, titulu federatiboa lortu dutenek urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak edo horien arau-xedapenak araututako kirol irakaskuntzetatik kanpo. Egoera horretan dauden pertsonak gaituta geratuko dira kirol modalitate edo disziplinan jarduteko, eta dagozkien titulazioko kirol mailan, nahiz eta aukera izango duten aldi baterako gaitzeko goi kirol mailerako, betiere dagokioen titulazio federatibo ez ofiziala lortzen badute 2021eko abenduaren 31 baino lehen.

Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak baliorik gabe utz dezake xedapen iragankor honen bosgarren eta seigarren ataletan ezarritako gaikuntza hori, kirol-modalitate edo diziiplina batzuetan, zeintzuetan formakuntza bereziki edo nagusiki bide ofizialetik garatu baiten.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa.





44. ZUZENKETA:

Lehen xedapen iragankorrean atal berria gehitzea

Testu berria:

7.- Goi Kirol Teknikari Titulurik ez dauden kirol modalitate edo disziplinetan, aldi baterako gaituta geratuko dira dagozkien kirol modalitate edo disziplinan Kirol Zuzendari lanbidean jarduteko, dagokion kirol modalitate edo disziplinan Kirol Teknikari tituluaren bidez kualifikazioa egiaztatu dezaketenak.

Zioa:

Badaude zenbait kirol modalitate edo disziplina zeintzuetan egungo formakuntzarik handiena, eta baliteke etorkizunean ere hala izatea, Kirol Teknikari Tituluarena den. Hori dela eta, ez dute Goi Kirol Teknikariko prestakuntza. Horren adibide dira kirol buzea edo parapentea bezala nagusiki aisialdi-izaera duten modalitateak. Hori dela eta, ezinbestekotzat jotzen da Kirol Teknikariko formakuntza gaitzea, kirol modalitate horietako kirol zuzendaritzarako.





45. ZUZENKETA:

Lehen xedapen iragankorreko zazpigarren atala ALDATZEKO

Jatorrizko testua:

7. Gaikuntza lortu duten profesional horiek Kirol-arloko Profesionalen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan eman behar dute izena, gaikuntzadunen atal espezifiko batean.

Testu berria:

7. Gaikuntza lortu duten profesional horiek ardura adierazpena aurkeztu beharko dute Kirol-arloko Profesionalen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan izena emateko, gaikuntzadunen atal espezifiko batean.

Zioa:

Euskadiko Kiroleko Profesionalen Erregistrorako, dagokiona da gaitutako pertsonen profesionalen tratua bera izatea, hau da, ardura adierazpen bat baino aurkeztu beharko lukete, gero izena emate aldera.





46. ZUZENKETA:

Bigarren Xedapen Iragankorra ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

1. Kirol Monitore, Entrenatzaile edo Kirol Zuzendariaren lanbideei dagozkien eremu material guztietan, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak bere eskumenen eremuan egiaztatzen badu ez dagoela lege honetan aurreikusitako kualifikazioak dituen profesionalik une bakoitzean dagoen eskaintzari behar bezala erantzuteko, edo egiaztatzen badu prestakuntza ofizialik ez dagoela edo kirol-esparru berriak sortu direla, kualifikazio txikiagoa edo antzeko beste prestakuntza-mota bat duten pertsonak gaituko ditu behin-behingo.

Testu berria:

1. Kirol Monitore, Entrenatzaile edo Kirol Zuzendariaren lanbideei dagozkien eremu material guztietan, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak bere eskumenen eremuan egiaztatzen badu ez dagoela lege honetan aurreikusitako kualifikazioak dituen profesionalik une bakoitzean dagoen eskaintzari behar bezala erantzuteko, edo egiaztatzen badu prestakuntza ofizialik ez dagoela edo nahikoa ez dela, sarbide-baldintza ezpezifikoak ziurtatzeko probak faltatzeagatik formakuntza ofizialetarako sarbiderako ezintasuna, edo kirol-esparru berriak sortu direla, kualifikazio txikiagoa edo antzeko beste prestakuntza-mota bat duten pertsonak gaituko ditu behin-behingo.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa.





47. ZUZENKETA:

Laugarren xedapen iragankorreko lehen atala ALDATZEA

Jatorrizko testua:

1. Lege hau indarrean sartzen denean lege honek ezartzen duen lehen laguntza emateko kualifikaziorik ez duten kirol-arloko profesionalek 2020ko abenduaren 31ra arte jarraitu ahal izango dute lanbide-jardueran.

Testu berria:

1. Lege hau indarrean sartzen denean lege honek ezartzen duen lehen laguntza emateko kualifikaziorik ez duten kirol-arloko profesionalek 2021eko abenduaren 31ra arte jarraitu ahal izango dute lanbide-jardueran.

Zioa:

Legegintzako hobekuntza teknikoa.





48. ZUZENKETA:

Xedapen INDARGABETZAILEA aldatzekoa

Jatorrizko testua:

Indargabetuta geratu dira Eskola-kiolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 25. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakiak, bai eta lege honetan xedatutakoaren kontra doazen maila bereko edo maila baxuagoko arau guztiak ere.

Testu berria:

Indargabetuta geratu da Eskola-kiolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 25. Artikulua, bai eta lege honetan xedatutakoaren kontra doazen maila bereko edo maila baxuagoko arau guztiak ere.

Zioa:

Aurrerantzean, eskola kirolean diharduten pertsonen beharko duten prestakuntza edota esperientzia, beste edozein kirolean bezala, lege honetan ezarritakoa izango da.





49. ZUZENKETA:

Seigarren azken xedapeneko bigarren atala ALDATZEKOA

Jatorrizko testua:

Azken xedapenetik bigarrena. Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 128. artikulua aldatzea

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 128. artikuluari, administrazioko arau-hauste larriei buruzkoari, h) eta i) letrak gehitzen zaizkio. Honela idatzita egongo da:

- h) Elkargoko kide egiteko edo Kirol-arloko Profesionalen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan izena emateko betebeharra ez betetzea, bai eta kirol-legediak edo kirol-arloko lanbideetan jarduteko legeek ezartzen duten erantzukizun zibileko aseguratik ez edukitzea ere.
- i) Kirol-lanbideen izenak erabiltzeko betebeharra ez betetzea.
- j) Ez betetzea EAEko kirol-lanbideetan sartzeko eta jarduteko legerian jasotako lanbide-betebeharrak, eta horrek kalte edo arrisku larria eragitea pertsonen osasunean eta segurtasunean.
- k) Ez betetzea EAEko kirol-lanbideetan sartzeko eta jarduteko legerian jasotako betebeharrak, informazioaren eta publizitatearen arloari dagokionez.
- l) Ez betetzea EAEko kirol-lanbideetan sartzeko eta jarduteko legerian jasotako betebeharrak, plataforma birtualen bidez edo informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez lanbidean jardutearen arloari dagokionez.
- m) Boluntario moduan zerbitzuak ematea legean eskatutako lanbide-kualifikaziorik izan gabe, edo boluntarioak sartzeko dagokion kualifikaziorik eskatu gabe.

Testu berria:

Azken xedapenetik bigarrena. Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 128. artikulua aldatzea

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 128. artikuluari, administrazioko arau-hauste larriei buruzkoari, h), i), j), k), l) eta m) letrak gehitzen zaizkio. Honela idatzita egongo da:

- h) Elkargoko kide egiteko edo Kirol-arloko Profesionalen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan izena emateko betebeharra ez betetzea, bai eta kirol-legediak edo kirol-arloko lanbideetan jarduteko legeek ezartzen duten erantzukizun zibileko aseguratik ez edukitzea ere.
- i) Kirol-lanbideen izenak erabiltzeko betebeharra ez betetzea.



- j) Ez betetzea EAEko kirol-lanbideetan sartzeko eta jarduteko legerian jasotako lanbide-betebeharrak, eta horrek kalte edo arrisku larria eragitea pertsonen osasunean eta segurtasunean.
- k) Ez betetzea EAEko kirol-lanbideetan sartzeko eta jarduteko legerian jasotako betebeharrak, informazioaren eta publizitatearen arloari dagokionez.
- l) Ez betetzea EAEko kirol-lanbideetan sartzeko eta jarduteko legerian jasotako betebeharrak, plataforma birtualen bidez edo informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez lanbidean jardutearen arloari dagokionez.
- m) Boluntario moduan zerbitzuak ematea legean eskatutako lanbide-kualifikaziorik izan gabe, edo boluntarioak sartzea dagokion kualifikaziorik eskatu gabe.

Zioa:

Akatsa.





50. ZUZENKETA:

Azken xedapenetatik seigarreneko bigarren atala ALDATZEKO

Jatorrizko testua:

2. Hala ere, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera eskatuko zaizkie profesionalei lege honek arautzen dituen lanbideetan jarduteko gaikuntza ematen duten lanbide-kualifikazioak. Boluntarioei 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera eskatuko zaizkie lanbide-kualifikazioak.

Testu berria:

2. Hala ere, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera eskatuko zaizkie profesionalei lege honek arautzen dituen lanbideetan jarduteko gaikuntza ematen duten lanbide-kualifikazioak. Boluntarioei 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera eskatuko zaizkie lanbide-kualifikazioak.

Zioa:

ALDATZEKO zuzenketak urtebete atzeratzen du lanbideen ariketarako kualifikazioak exijitzeko aukera, eta berdindu egiten du pertsona boluntarioekiko exijentziarekin. Horrela, bi kasuetan kualifikazioak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera eskatuko dira, eta horrela, legeak ezarritako exijentzietara egokitzeko denbora gehiago utziko da.

